



ikastolak



ERENTZUN IKASTOLA
VIANA



Tableta eta mugikorren aurrean denbora gehiegi pasatzeak ondorioak ditu, ikusi bestela 5. mailako ikasle hauek nola gelditu diren.

Interneten eta mugikorretan seguru ibiltzeko sei gomendio

ITSASOAN NABIGATZEA ARRISKUTSUA OMEN DA, ETA INTERNETEN? ARTIKULU HONETAN GOMENDIO BATZUK LUZATZEN DIZKIZUEGU

Testua eta argazkia Erentzun Ikastola

Ezetz asmatu aurtengo otsailaren 7an zer ospatu den? Ez da San Fermin izan, hori, ongi dakizue, uztailan da. Ordenagailu eta mugikorrek zerikusia duen zerbaitez ari gara. San Internet? Ia-ia. Otsailaren bigarren asteartea... Internet Seguruaren Eguna da mundu osoan! "Zeeeeeer? Gure etxean, ordenagailu aurrean, ama ondoko gelan dugula, eta ez gaudela seguru?". Ba,

hala da. Nafarroako Ikastoletan egun hori ospatu dugu modu desberdinetan: gurasoak eta ikasleak informatuz, hitzaldiak antolatuz edo bideoak ikusten esaterako. Erentzun Ikastolako 5. mailakook, zerbait berezia egin dugu, gai honen inguruan konpetentzietan oinarritutako proiektu berritzaile bat jorratu dugu eta honen inguruan pila-pila ikasi dugu. Beraz, duela hilabete

baino adituagoak sentituz eta gure gaiarekiko jakituria hori guztioi zabaltzeko irrikaz hona hemen, gure aholkuak Internet eta mugikorrek modu seguruan erabiltzeko. Kontuan hartu ironia erabili dugula zenbaitetan:

-Zenbat aldiz amak esan digu etxetik irtetea ezezagunekin ez hitz egiteko? Eta ordenagailuaren edo mugikorraren bestaldean daudenak? Ezagunak ote? Egia diote?

Instagramreko lagunak benetan lagunak al dira? ARRISKUA! Erabiltzen dituzun Sare Sozialetan ikas ezazu partekatzen duzuna ongi kudeatzen eta ez argitaratu dena publikoki.

-Gure informazio pertsonala gurea eta gurea bakarrik da, ezta? Eta ordenagailuan gure helbide, telefono zenbaki, adin, sexua... gure datu guztiak betetzen ditugu norbaitek gure kontra edo bere onera-

ko erabil ditzake. ARRISKUA! Beraz, ez eman inori eta inon zure datu pertsonalik.

-Aulkian eseri eta pantailari begira, 5 min, ordu erdi, ordubete, 3 ordu... konturatu gabe badoa gure denbora, ihes egiten digula... Internet gure denboraren lapurra dela! ARRISKUA! Ikas ezazu moztzen eta zure buruari denbora mugak jar-tzen.

-Gu zein politikak garen, zeinen ongi pasatzen dugun, zeinen bizitza miwesgarria daramagun, munduari erakutsi nahi diogula? Igo, igo, gure argazkiak eta ez dira zureak bakarrik jada, edonork erabil ditzake, auskalo zertarako! ARRISKUA! Zerbait igo aurretik ezabatzea oso zaila dela kontuan hartu.

-Gauza ezezagunek erakartzen gaituztela... eta aplikazio hau zer-

Sare sozialetan, partekatzen duzuna ongi kudeatzen eta dena publikoki ez argitaratzen ikastea garrantzitsua da

Ez eman inoiz zure datu pertsonalik sarean, eta kontuan hartu igotzen den hori internetetik ezabatzea oso zaila dela

tarako ote da? Eta beste hau? Deskargak egiten ditugu eta... Birusak gure ordenagailu edo mugikorrera! ARRISKUA! Antibirus bat bai, burua ere bai.

-Tekla bakar bat sakatzearrekin kotxe bat irabaziko duzula ziurtatzen dizun iragarkia? Edo mugikor bat debalde eskuratuko duzula? Inork ez du horrelakorik ematen musu-truk. ARRISKUA! Klikatu aurretik, auntsatu!

Ea bada, amaitzeko, azken gogoe-ta batekin utzi nahi zaituztegu. Mundu digitalean, beste gauzetan bezala, arlo txar guztiak kenduz ezker... geratzen dena ona da! Izan ere Internet munduarekin lotzen gaituen zilborrestea da. Honek erabilpen eta aplikazio baliogarri asko eta asko ditu eta horiek zuek, zuen kabuz, deskubritzeko uzten ditugu. Erabilpen egoki bat egitea zuen esku dago, baina ez ahaztu Erentzun Ikastolan sarritan errepikatzen dugun gure leloa...

Teklak eta pantailak erabiltzeko garaian, burua erabili! ●


LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zer gomendio izan da zure ustez bailagarriena?
2. Beste gomendioren bat gehitu.
3. Non dago kokatuta Erentzun Ikastola?

Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Beñat López (Ibaialde Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Leire Mihura (Baztan Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia):
Maitin Maiora (Elizondoko Eskola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organi-koan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sar-tuta daudela eta horren helburua era-kundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxate-gia Datuak Babesteko Agentzian aitortu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.